

BAGERAREN BULETINA

2018 Martxo

**Kaixo bagerakide,
Martxoko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.**

Elkarrizketa Filosofikoak

Martxoaren 5ean, 19:00etatik 20:30etara Urrats Euskaltegian (Amezketarrak kalea, 12), izango da hurrengo Bageraren Elkarrizketa Filosofikoa. Gaia: (subiranotasun) destituitzailea.

1. Independentziatik subiranotasun globalera.
2. Populismo global destituitzaile baterantz.
3. Hamaika sintoma destituitzaile.

Irakurgai: Populismoaz. Joseba Gabilondo. txalaparta. (175-274 orrialdeak).

Mintzodromoa

Martxoaren 6an izango da urteko lehen Mintzodromoa. Bi txanda izango ditugu ohi bezala; lehena goizeko 10:00etan eta bigarrena 11:00etan.

Animatuz gero, zure izena bidali eta zein txandetarako prest zauden adierazi (10:00etan edo/eta 11:00).

Kantu Jira

Martxoaren 17an, Parte Zaharreko Fermin Calbeton kalean, 12:00etan izango da hilabete honetako Kantu Jira. Kantu Jiran euskal kanta tradizionalak abesten dira eta interesa duen orok parte har dezake.

Animatu eta gozatu euskal abestiak kantatuz!

XVIII. Donostiako Antzerki Sarirako gonbidapenak


Xake Produksioak konpainia sortu berriak egindako [Mami Lebrun antzezlanak](#) irabazi du XVIII. Donostia Antzerki Saria.

Saria emateko ekitaldia **martxoaren 27an**, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean egingo da, 19:30ean, Victoria Eugenia antzokian. Ekitaldiaren hasieran saria emango da eta ondoren lan irabazlea eskainiko da.

Bagera Elkartek gonbidapenak ditu eta interesa izanez gero bagera@bagera.eus helbidera edo 943005074 telefonoan eskuratu ditzakezu zure izen abizenak emanda.



Gonbidapenak izena ematen duzuenon arabera banatuko dira agortu arte (bazkide bakoitzeko bi gonbidapen eskatu daitezke).



Bagera Kulturaletarako egin zure proposamena

Bazkideen parte hartzea sustatzeko Bagera Elkartek urtean zehar antolatu ditzakeen formatu txikiko jarduerak proposatzeko aukera zabaldu nahi du.

Askotariko jarduerak izan daitezke: hitzaldiak, poesia errezitaldiak, poltsiko-antzerkiak, bakarrizketak, solasaldiak, mahai-inguruak, bideo proiektzioak, tailerrak, ikastaroak ...

Bota zure proposamena eta saiatuko gara aurrera eramaten!!

Bageralako Nor: “11 eguneko esnatzea gure bizitzetan”

Bagera Elkartek Irutxuloko Hitzan hilean behin argitaratuko den **Bageralako Nor** atalean eremu/arlo/sektore ezberdinetan dabilzan aritu eta adituei *Euskaraldian* parte hartzeko eta aktibaziorako arrazoiak partekatzeko gunea eskainiko diegu.

Lehen kolaborazioa, “11 eguneko esnatzea gure bizitzetan” Idoia Trenorrek idatzia, irakurgai duzue otsailaren 23ko [Irutxuloko Hitzan](#).

Donostian herri-galdeketa egin ahal izateko sinadura-bilketa

“Galdeketa Donostia” plataforma (Gure Esku Dago ekimenaren babespean sortua) Donostiako gizarte eragileekin harremanetan ari da eta Bagera Elkartearengana jo du. Udazkenean herri-galdeketa antolatzen ari dira Donostia mailan eta sinadurak biltzen ari dira (8.000ko helburua dute ezarria). Bagerari babes eta laguntza emateko proposamena luzatu diote, hiriko beste eragile sozialei bezala.

Zuzendaritzan eta urteko Batzar Orokorrean proposamena aztertu da eta sinadura bilketan laguntzeko erabakia hartu dugu. Bagerak orokorrean hizkuntzaren gaitik haratagoko ekimenekin ez lotzeko irizpidea ezarrita badu ere, kasu honetan, herritar bezala norberari eragiten dioten gaiak norberak erabaki ahal izatea oinarritzko printzipio bezala ulertzen da. Eta printzipio horren baitan, euskal hiztun bezala ditugun eskubideez eta hizkuntza-politikaz erabaki ahal izateak lotura berezia du Bagerak sustatzen dituen helburu eta baloreekin.

Horrela, galdeketa egin ahal izateko sinadura emateko interesa duen orori aukera hori eskainiko diogu Bageraren Hernani kaleko bulegoan martxoaren 25a arte.

Agenda

Osteguna 1, 17:30ean, Auzoko egitasmoaren aurkezpena Amara Berriko Auzo Elkartean.

Astelehena 5, 19:00etan, Elkarrizketa Filosofikoak Urrats Euskaltegian (Amara Berri).

Astearte 6, 10:00etatik 12:00etara, Mintzodromoa San Telmo Museoa (Parte Zaharra).

Larunbata 17, 12:00etan, Kantu Jira Fermin Calbeton kaletik abiatuta.

Astearte 27, 19:30ean, XVIII. Donostia Antzerki Saria Victoria Eugenia Antzokian.

Oharra

Martxoaren 8an mugimendu feministak proposatutako lanuztearekin bat egitea erabaki dugu Bagerako langileok eta egun horretan 11:00etatik 15:00etara bulegoa itxita egongo da.